

Nemesio Etxaniz

ARRALDEA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Arraldea*, Nemesio Etxaniz. Argiaren Idaztiak,
1923.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=34>

ARGIAREN idaztiak

Etxaniz'tar Nemesi

ARRALDEA

IPUI ZARRA

DONOSTIA

Loyola'tar iñaki Deunaren irarkola.- Garibai, 28

1923

I

Su ondoan

Gau ura, neguan oi-diranez, illuna zan. Aurrean genduan itxasoa olatu biziz eta ekaitz-endarrez arrotua: zerua tximist-orruka: aizea, kalezoko ta leyo-zirrikixtoetan txistuka. Gau arlan etxetik ate girorik etzan!

Ni umea ere banintzan artean eta egualdi beltz arek oso bildurtzen ninduan. Antxe, apalondoan gaztaña erreak kolkoan nituala, su-ondoratu nintzakion nere aitari; ta bere alboan nere barruko blidurra uxatu nairik, eskuak bere belaunetan nituala, gaztaña zuritzen eta jaten ekin nion.

Gau artan aitaren begiak, kezka bildurgarri batek baleragie bezela, beltzagoak ziran. Ni ezer galdetzen ausartu gabe, zai-zai ta eten gabe begira jarri nintzakion.

Nolzbait nigana itzuli zan ta bere antz illuna galitzeke, nere eskuak berien artean igurtzi zizkidan.

-Seme, entzun al dezu beñere, Arraldeko Garbaidunarena?

Au entzun-orduko anai guziak aitarenganatu ziran
bizi-bizi, ta onek gure gogoa barneatu zuen ezkerro,
onela ekin zion:

II

Oitura zarra

Ez nuan neuk ikusi, nere amonari entzun bainion; ta arek ere bere amak ikusi ta berari aditua zuala, zion. Aspaldikoa da ba, gertaera au. Alare entzun nue-netik josi-josiak ditut nere gogoan Arraldeko aitz-muturrak.

Gure Zarautz onetan, orain aztutako amaika oitu-ra eder ta ikusgarri baziran antxiñan. Oyen artean Garbaidunena, ikusgarrienetakoa zenduten. Garbaidunak erriko gizasemeak oi ziran, ez lekaideak: ta noi-zean-bein, Azpeiti-bideko «Villa Padierna» jauregi-aldean gabaz batu oi-ziran.

Bakoitza bere bidez, argitzalle bat aldamenen ta burnizko kate sendoak soñean zituala, jauregi aren ingururutzen ziran. Andik asi ta guziak ibildeuna egi-ñaz, batera errirutzen ziran. Ikusgarria zan gero egun ayetan alderdi ura! Erritik gabaren illunpean ainbat argi sotil agertzen ziran, ta Garbaidunen otoitz eta kate-otsak, itzalgarrigotzen zuten bide artako illunpe beltza.

III

Odolbeltz

Garai artan erriko gizonen artean, bazan gizatxar bat: betoker, bekozko-illun, biotz-gogor eta lapurra. Bere eskuetan errukarriren bat il ote zuan ere, bazan zurrumurrua baztarretan. Guziak aren asmo okerren bildur ziran, ta umeak bere izena entzutea aski zuten bertanbela igesi ekiteko.

Izena ere bere izakereari zegokiena zuan: erriak, oi duan bezin egoki, jarri baizion: «Odolbeltz» deitu zioten ta Odolbeltz gelditu zitzayon betiko. Gaztegarayan, oi danez, maitasun-izpi-antza sortu zitzayon bere biotz beltzean: baña beste gizonei biotz-bigun eta gozatzalle oi zayena, ari biotz-garratz eta urratzalle izan zitzayon.

Erriko nexka garbi, apal, begi-urdin-ezti bat bein begiz jo zuan, ta gogorik txikiena ere bere buruari ukatzen etzekielako: oraingo bere maitasun oni galarazpenik ipiñiko ziotenik ere, etzuan uste. Ala zan bere ustea, baña aren usteak uste, jokoak gaizki irten zion, ta Manttoni (ala zeritzan neskatxa) beste gazte on, langille ta kideko batekin ezkondu zan.

Odolbeltzek Manttoniri zion gorrotoa, ordutik ezkerokoa. Ta zoritxarrez, Manttoniri bi urteburuan, umetxo bat uzten ziola, senar gaztea il zitzayon. Eriotz beltza ta eskutukoa ura! Goiz-goiz lanera zijoazen baserritar batzuek bide-ertz batean luze-luze zetzala, billatu zuten. Nork il ote? Nola? Zergatik gero? Guziak erantzun berbera zekarten: «amaika arrayepola! eriotz ortan Odolbeltzen ezkoa eztala zuri gelditu! Bai, gizatxar ori orrenbeste ta geyago ere egiteko lain badek». Garbi itz-egiteko kemenik iñork ez ordea: Odolbeltzi bildur baizioten.

IV

Gaxoa!

Manttoniren negarrak! bere biotzeko illunpe beltza! Nork neurtu gero? Iñork ere. Bere ume gaxoa lepoan artu, jaso bere besoetan, laztandu, berari begira-begira jarri ta azkenean, biotzean estutzen zuala, negar ta negar, ta negarrez ezin ase alargun naigabeta.

Odolbeltz ostera, egun gutxi barru, gau ta egun jarraika asi zitzayon, ta lengo naigabez gañera ikaraz ta bildurrez lotua zekarren Manttoni errukarria.

-Mantoni, oraintxe ba: senarra il zatzu-ta... nerekin nai bazenduke...

-Beñere -erantzuten zion Manttonik.

-Nere maitasunak zure biotzaren utsa beteko du. Nere zoriona zurekin ta zuretzat nere...

-Neretzat il zaidan senarra besterik etzan bai, ta ura joan zaidan ezkerko malkoa besterik ez dute nere begiak: biotzak berriz... oi, au gau beltza!

Itz auekin batera negarrari ematen zion. Odolbeltz gaiztoa ordea, negarrak errukitu bearrean, su bizian jartzen zuan. Alakotxea zan bere biotz makurra!

-Ez al-dakizu zein naizen? -erasoten zion ikaragarrri alargun gaxoari-. Onean makurtzen ezpazera ba, txarrean ondo ezagutu bear nazu, orratik!

Onelakoak oi ziran gaxoaren egunak senarra il zitzayonetik; ta gizon aren bildurrak bein edo bein bere biotza makurtuko-ez-makurtuko bazerabilen ere, senar zanak utzitako umea ikusteak bere gogoia sendotzen zion ta alperrik ziran Odolbeltzen alegin guziak. Alargunaren biotza ildako senarrean zegoan ta beste ezkontzarik etzuan nai.

Urte bat, bi, iru. Manttoni beti-re zuzen, beti-re garai. Odolbeltzen biotzak maitasun-antz guziak bein-betiko galdu zituan, eta gorroto-ukeldeari ate zabala iriki zion. Jarri zan len maite zuenaren ondoren, bigundu ezin zuan biotz ua bere aizto gaizkilleaz zatitzeko: baña ardi sotillak beti-re otso amorratuaren agiñetatik iges-egiten zuan.

Alako baten, sulezeko etsayak-edo... gorroto zuan emakumea iltzeko aukera egin zion.

-Biar -zion Odolbeltzek-, gabaz Garbaidunak batzekoak dituk, neu-re garbaidun jantziko nauk... Garbaidunei argi-egitea bearrekoa dek bai, ta bidea argitu dizadan Manttoniri ots-egingo ziot... Gaba

illun... noizbait bakarrik geldituko gaituk... A, emaku-
me arro ori biar nere eskuetan il-bearra dek!

V

Otsoaren eraso

Esan bezela egin ere. Biaramonean Odolbeltzek garbai-nekale-jantzita gertu zuan gaberako. Manttoni bederatzi ta erdietan apaldu, umea lotaratu ta sukaldeko ontziak garbitzen asi zen. Onetan ari zala, atejoka ekiten diote... Biotzak gorako bat egin zion ate-otsa aditzeakoan ta berez bezela umea lotan zeukan seaskara begiak joan zitzaizkion: barruak ikara zegion ume ua azkenengo aldiz balekus bezela.

Bereala beste bi ate-ots: azkar-azkar ta dardaraz aratzen da. Gaba zorgin-zuloa baño beltzago zetorren! Luzetu argia zein ote zetorkion ikusteko ta... ene...! kurrirka bat egiñaz gorputzak atzera egin zion. «Odolbeltz ordu ayetan! Zertarako gero? Onerako ez, noski».

Aurreratzen zayo Garbaidun-jantzian andre izutuari: goitik berañoko soñeko lodi auts-margoduna zuan; bizkarretik berriz kate ta burni-lokiak.

-Aizu, etxeakoandre -esan zion- gaur garbai-neka-lietakoa naiz-ta argi zadazu bidea.

Manttonik bildurraren bildurrez zer erantzunik ere etzekien. «Odolbeltzi argi-egin gau itzal artan! Ai ene, ta gizon arek, bera ilda, gorroto guziak ase naiko zituan! Ta ori jakinda-re joan egin bear... bai ba, Garbaidunak beren argitzallea aukeratzeko eskubidea zuten-eta, nai-ta-nai-ezkoa zan argi-egitea».

Itzik ateratzeke, itxu antzean, artu zuan arkontzia: umeari bi laztan ixil-ixillak eman zizkion ta, biotza erdi-bi, Odolbeltz atzetik zuela atera zan. Etxe-tartean biak ixil-ixillik zijoazen; andrea aurrenen, noizean-bein atzera zearka begiratuaz ta gizonagandik al zuen urrutiena; gizona berriz Agurtza otoiztuaz begiak lurrean josita ben-ben atzetik.

Munora eldu ziranean, andrea etxeak alde batera utzita erritik irtetzeko bidea zeramatela ikusirik, gero-ago ta bildurtiago zijoan.

-Nora goaz? -galdetu zion garbaidunari.

Odolbeltzek bere otoitz-antza uzteke, abost itzal-garriz, «Kolarkoko iturrira» erantzun zion.

Emakumea toki artara zeramatela entzuteakoan, dardaraz asi zan. Badakizute iturri au nun dagon. Getariko bide zabalera irtetzeakoan, Granadako Duke-jauregi aldetik beste aldera zubia badezute: or bada, Duke-jauregiaren bestaldera baratza itxia ikusi leike-

zue. Iturri ori ortxe dago: orain orma barruan noski, baña garai artan ormarik eta aterik etzan. Guzientzat zabalik bai-zegon.

Iturria bera baño-re bildurgarriagoa zuten arako bidea. -Zergatik ote? -Orduan Getariko bitxabalik etzalako. Orain alderdi ayetan bide zabal eta argia dezute: baño gure gertari onen garayan mendia ta itxas-ertzeko aitz solla besterik etzan. Manttoni ta Odolbeltzek bada, ondartzatik iturrira aitza besterik etzuten.

VI

Illunpean argi

Utzi ditzagun pixka bateko gure garbaidun ta berekin dijoan emakume izutua. Beste garbaidunak ikusi bear ditugu. Irakurle, oitura arrigarria ikusteko zaude. Atozea nerekin ta sartu zaitte, arren, ixil-ixillik Azpeitirako bitxabalean. An datoz erri-aldetik bana-banaka, orain askok parrez ikusiko lituzketen, baña orduan begirakunez ta lotsaz ikusten zituzten garbaidunak.

Gure aurrekoak dira. Etzaitte zu beintzat parrez asi: ordukoak bezela, begirakunez ta arrigarriz geldi zaitte beren aurrean. Ayen sinismen sendoak gure artean iraungo balu, ez giñake oraingo euskaldunik asko geran bezin lotsagarriak izango! ez oixe!

Ara or bide erdian guregana datorren argi bat. Aurretik argiak in datorrena, Zarauzko etxerik ospetsuenetakoa dezu: aren atzetik, saku zar bat bizkarretik bera, esku-oñak katez lotuak, begiak lurrean ta ezpañak otoika dakarzkien orrek etzuan orañ arte orrelako apal-itxurarik. Bera ere etxe oneko jauna ta argi-egiten dijoakionaren etsai amorratua zan: baña

orain gorroto-kutsuak Jainkoaren aurrean garbitu nairik, len gorroto zuanaren ondoren apal-apal pekatarijantzian dijoakizu. Ori bide zuzena!

Ta urrutiago datorren beste bikote ua? Ene! oixen da arritzeko bilquna! Ille zuria batek buruan ta besteak berriz ume-irria arpegian. Nola ote? Garbaidun-eguna eldu danean aiton zarrak bere soñeko zakarra jantzi du: an dago illoba txikia aitonaren soñekoari bildur-antzean begira. Aitonak eskutik eldu ta: «Illobatxo maitea, dioyo, atoz gaur nerekin. Neri orrelaxe erakutsi zidaten nere aurrekoak eta zuk ere Jainko-barkapena nola eskatu bear dan, gaur gabean ikusiko dezu. Atoz: zu aurretik argi-editen; ni Jainkoari erruki-eske zure ondoren». Ta ala datoz biak.

Or beste bi ere. Ama -gaxoa!- il zaye-ta, aren gogoia lenbailen zeruratzeko, beren buruen beratze au Jainkoari eskeintzen diote. Seme onak ala bear!

Oyen antzera beste argi eta argiak ere nunnai azaltzen dira. Bide biurretan arutz-onuzka agertu ta eskutatu: bein eskerrera ta beste bein eskuira: erritik eta inguruko baserrietatik. Gau onetan ezta gizon edo emakume azirik etxe barruan gelditu: umetxoren bat zaitu bearrik-edo ez izanik beintzat. Zarautz guzia ementxe bildu zaigu.

Argitzalleak len esan degun jauregi alderaño laguntzeko bearra zuten; ez baña andik errira berriz itzultzeraño. Iñoiz garbaidunak berak bide erdiraño bakarrik laguntzeko agintzen zion bere argitzalleari, ta orduan araño bakarrik lagundu bear zion. Ala-re askotan argitzalleak, berriz erriratu arte bere gogoz lagundu oi zion.

Odolbeltzek, ikusi degunez, Kolarkoko iturriraño bakarrik laguntzeko agindu dio Manttoniri ara ezker eztu bear geyago lagundu bearrik. Gerotxoago auei ere jarraituko diegu: bitartean beste garbaidunekin egongo gera.

Ara poliki-poliki bi mordoxkatan nola zatitzen diran: baita banaka-banaka bidearen bi ertzetatik erriraten nola ekiten dioten ere. Orain gu Eleiz ondora goazen, andik etorrera obeto ikusiko degu-ta.

Lenengoak bide muturrean agertzen asi dira zugatz artean bi argi-lerro luzetzen-luzetzen... zorgintalde bat edo anime gaxoen batzuek ote diran ere esan liteke! Alakotxe ixil eta astiro datoz. Ez beti baño; iñoiz ixil bildurgarri ua kate-otsak urratzen du... garbaidunen kateena dezue... Itxasoko olatuen burrunda ayen otoitz-surru-murruaz nasten da, ta

bien bitartean erriko etxe banatuak argi gorri-illunez jazten ari dira.

Garbaidun gaua! gau itzalgarria! Beren argia garbitokiko su-txinpartak dirudite: *Miserere mei!*... Erruki ni! erruki ni! oska ari zaizkigula esan bear. Ai, anima gaxo ayek lurrera etorri al balitezke! zer gorputz-urrazte ta ze neke eramango lituzketen beren utsak garbitzeagatik!

Sulezetik ere deadarka ari zaizkigula dirudi. «Oi nere zorigaitza! oi nere gau beltza! Oraindik lurrean zaudeten gizonok, or zaudeten bitartean zeuen pekatua garbi itzazute. Gero garbitzerik eztago-ta. Ai au il-eziña! Ai au betiko bearra».

Garbaidunak beren azken otoitzak egitera Eleizan sartu dira. Oraintxe itxi du azkenengoak Elizeko sarre-ra, ta andik ate gelditzen zan argi pittiña berarekin urtu da... Oi, au beltz gelditu da erri-barrua! Akelarko sapoak ere ixillik daude gau onetan. Lur guzia illunak irintsi duala, dirudi...

Bañan... zaude geldik1... zer zarata da ori? zer oin zalaparta? Emakume-kurrixka bat entzun ote dedan, nago... Bai... ara berriz ere... Orain gizonen baten itz asarratua... emakumearen ondoren aizto bat eskuan duala, dijoa!... Oi! bera da? Odolbeltz!... ta igesi dijo-

an emakumea... Manttoni! Zer dute? nundik nora agertu zaizkigu emen? Atoz nerekin pixka baten ta lenago utzi ditugun tokian bertan ar ditzagun biak.

Munoan, ondartzatik ziar iturrirako bidean ekiteko-tan utzi ditugu len. Goazen araxe ta beren begietatik eskutu, jarrai dizayegun.

VII

Aitz-artean igesi

Emakume errukarria geroago ta kezkatuago zegoan: Odolbeltzek noiz erasoko bildurrez, beti-re atzera begiraka. Alderdi guzia ixil-ixillik! Iñoren aztarranik ez: garbaidun gaiztoaren kate-otsa bakarrik.

Noizbait aitz-artean ziar asi ziran. («Arraldea» zayo izena toki ari, *arriz* betea dagoalako) ta emakumea gizonagandik al zuen urrutiena zijoan. Iñoiz gizona katez lotua zettorrelako, atzeratu egiten zan ta Manttoni aitz gañetan, ua igo zai, argi-egiñaz gelditzen zitzayon.

Odolbeltzen arpegiak Arraldeko illunpean izugarriagoa zirudien: itxasoko olatuak ondartzan lertzeakoan, barru-barrurañoiko ikara beltza zemayoten Manttoniri. «Ara nere azkena! zion. Oraintxe erasoko dit gizatxar orrek, emen det laster bere aizto gaizkilleaz nere biotza erdibitzera! Au larria! au egoera beltza!».

Azkenengo atzera eldu ziran. Odolbeltz kateagatik nekezago zettorren artean: Manttonik berriz, oi zuañez, arin arin aitz-muturreraño igo zuan. Zer egingo?

Antxe zegon iturria: Odolbeltzek araño bakarrik laguntzeko agindu zion lentxeago.

«Agindu bezela egin det, esan zuan bere artean emakumeak. Une bat geyago gelditzen banaiz, emen-txe ilko nau gizatxar orrek. Aingeru Zaitzallea, zaitu nazazu!».

Besterik gabe artzen du arkontzia ta, gizonak bere zai an dagola siñistu dezan, aitz-gañean uzten du. Gero tximista baño ariñago aitz-arteana igesi ekiten dio. Bildurrak egak zemaizkiola zirudien. Aren lasterketa!, Aren aitzulo-gañak azkar igarotzea!

Odolbeltz, emakumeak uste bezela, aitz gañean zegon argia ikusirik emakumea ere an zualakoan, bazijoan. Baña aitz gaimdu zueneko bere atzipena ta emakumerik eza ager zitzazkion. Bertan ao beltz arek birao naskagarri bat bota zuan. Alde guzietara begira ekiten dio: gabaren illunpe beltza besterik ez... Amorroaren amorroz kate gogorraz soña joka asi zan. Alako baten andrearen gona gorria Munoan gora begizatzen du.

Ai, -Ikusi al dezute arrano beltza bere atzaparrak gerturik; oñeztarria baño ariñago arkume gaxoaren gañera erortzen; ta lenengo erasoaldiak uts egiten

badio, bigarren aldiz amorro biziagoaz begi-idiki batean goi-goitik bera zorrotz bere burua botatzen?

Alaxe ba Odolbeltzek, bere atzaparretan zekarren emakumeak igesi ta berriro nabaitu zuanean, begi beltz ayek illunpean argitu zitzaizkion, ta soñean zituan kate ta guzti gorroto-zantzo bat egiñaz, iparra olatu gañean baño ariñago, aitzez-aitz ondartzatza alde-
ra lasterka ekin zion.

Gaizkillien begiak zer dutenik eztakit nik baña illunperako egiñak dirudite. Beren azkena tokirik illunena, sulezea oi dutelako ote? Ala nunbait.

Odolbeltz une batean, aitz guztiak igaro ta, ondartzaratu zan. Alboko gauzei begiratzeke itxu-itxu zijoan. Emakumea bakarrik. Igesitako emakumearen gorroto itxu-amorrotua bere biotz kixkalduan.

Itxasoa goraka zetorren ta uin bakoitza ondartzan lertzeakoan, olatu gañean mamu arin-taldea egaka urbiltzen zan. Mamu arin ayek Odolbeltzi belarrietaritzen zitzaizkion ta bere amorroa geitzeko, parrez ekiten zioten esanaz «A, kaskallu zarra! Eure eskuan euki emakumea? ta azkenean bizirik iges egin ere bai? Eztaukak berriz arrapaturik, alako kerten orrek».

Ontan beste olatua lertzen zan ta an ziran piloka beste mamu-taldeak. Joaten zitzaizkion Odolbeltzi ta

batek oñetatik, besteak bizkarretik bultzeka ekiten zioten: la Odolbets! pixkat azkarrago... ta eure eskue-tan dek emakurne arro ori. Jo ortan! la erri-barruan bada-re arrapatzen dekan! Guziak garbaidunetara joan dituk eta erria utsik zegok. Elduyok antxe ta iñork ikusteke, il ta kito. A, orduan bai pozik ire biotza ta ase ire gorrotoa!

Ta onela ziotela bultzeka zeramaten gizatxar ura. Mamu ayek txerrenak ziran ta, oi dutenez, Odolbel-tzen gogo lizuna gaitzera geyago makurtu nai zuten. Onek, txerrenen esanak entzunda, gorroto-bururapen biziagoak zerabilzkian bere barrenean: ta zeñek itz-egiten zionik ez bazekien ere, txerrenen iseka ta alga-rak amorro-labe goria izutzen zioten bere biotzean.

Bitartean emakumea arnas-estuka, Munoa igarota, kalean ziar tximista-utsean zijoan. Baña aitzetik arañoako bidez indarrak auldu ere batzaizkion eta gizona geroago ta urreago nabaitzen zuan. Antxe zegon bere etxea ltxas-kalea igarota berealaxe, baña atzean aditzen zuan oin-otsak agi asko adirazten zion etxera baño lenago gizona gañian zuala.

Orduntxe, kale mutua okertzeakoan, orpoz-orpoz zetorkion Odolbeltz: ta bere azkena an zualakoan uste guztiak galdu zituan. Odolbeltzen aiztoak gabaren

illunpean dir-dai egin zuan: arnas estu bat geyago, ta Manttoniren lepoan zan aizto galgarria. Baña onetan irrist eginda luze-luze erori zan gizagaiztoa: baita ua sapoka ta biraoka zegon bitartean, emakumea etxeko atera azkar eldu ere.

Bi aga luze-aztunak batetik bestera sartzen ditu. Une bat gerotxoago an zan Odolbeltz atea bota bearran. Manttoni bildurrez ta ikaraz koxkolduta noraitu etzekiela, atea noiz eroriko zai zegon. Etxean bakar-bakarrik; auzoan laguntza eske asteko-re iñor ez!

VIII

II da!

Alako baten Odolbeltzen indarrak atea austen du, ta orduan ditu Manttonik estusun ta larri guziak berekin. Odolbeltzen begiak atea erori zaneko, otso gose-tiarenak bezela, argi-argi agertu ziran Manttoniren begietan. Orduntxe bai etzitzayola igesiko bere esku artetik! Antxe ordainduko zizkion ainbeste egunetako biotz-min eta gorrotoak!

Ala uste: baña Jaunaren begiak alako gaiztakeririk ez ikusiko, ez oixe! Gaizkilleak noiz-edo-noiz bere gogo zimurrak betetzea baliteke, baña noizbait elduko zayo ari ere Jainkoaren ezpata zorrotza, ta burnia uretan bezela, gaiztoaren gogoa sulezeko zoko beltzenera eroriko da.

Estusunean, zeruak ate berri bat iriki zion Manttoniri. Odolbeltz gañera zetorkiola, badijoa igesi ukullura: an dago etxeko zezena askan lotuta. Etxeko guztiak ondo ezagutzen ditu ta ala Manttonik bildurrik batere eztio. Azkatzen du aberea: adarretatik eltzen dio, ta gizona sartu zai zutik gelditzen da.

Ua bilguna emakurne ta zezenarena! Au lepo sendoa okerka, adar-zorrotz, sudur-oska, emakumearen galtzoria usmatu balu bezelaxe eraso zai. Ua berriz, aitzurdin-irudia zirudiela, eskuak zezen adarretan: begiak atean josiak: arpegia zuri-zuri: illeak arutzonutz. Antxiñeko emakume garalle bat zala, esan bear.

Une bat geroago izan balitz, galtzen zan Manttoni. Odolbeltz, aitzo gaizkillea eskuian ta argia eskerrean duala, ikulluan sartzen da. Emakumea illunpean begiztatu orduko, ez zezen ta ez beste, barruko gorroto guziak eragiten diola, itxu-itxu bere gañera dioa.

Gero... emakume-garrazi bat... zezen-orru ikaragarria urrengo, ta erio-deadar larria egiñaz gorputz bat luze-luze lurrera datorr. Il da!...

-Zein...? zein, alta? -eraso genion anai guziok batera.

Aitak begiratu zigun eta ixil-ixillik gelditu zan. Txingorrak gogor jotzen zuan leyo-atea, ta aizeak, zirrikixtotik ziar, intziri luze bat bialdu zigun.

-Manttoni errukarria!... -esan nun bildurraren bildurraz aitari gogor eutslik.

-Etzan Manttoni, seme -erantzun zidan.

-A... -egin genduan anai guziok arnasartuaz.

Ta aitak, bertan ikusiko balu bezelaxe, onela jarraitu zion:

-Ez da Manttoni, ez. Odolbeltz da. Zezenaren adar zorrotzak sayetsa idiki dio ta ikulluko ate aldera odol-jario luzea dijoa.

Manttonik begiratzen dio pixka batean; gero zerura begira: «Eskerrak Zuri, dio, nere Jainko maite orri!» ta beste itzik gabe lurrera erortzen da. Ordu arte bil-durrak eusten zion, baña azke arkitu daneko, ainbeste neke ta larritasunez etenda! gaxoa! txorabiatu egin da.

* * *

Urrengo goiza... Eguzki-izpiak ikullu atetik sartuta barrua argitzen dute. Ate ondoan emakume bat dago, arnasa gabe dirudienez arutzago, gizon bat datza: ta bien artean odol-erreka luzea... Zezena bakarrik bizi dala dirudi, an dago gizonari sudur-oska jaikiten ote zayon zai bezela, baña, ez ailperrik!

Emakumea oster, berriro arnaska asten da begiak irikitzen ditu: eskuak bekokira badaramazki... eztaki zer gertatzen zayon... Ontan besoak beratu ta

«Ene, odola!» dio, ta bat-batean gabeko gertapen guziak burura zaizkio. Au beltzak, nere Jaungoikoa!

Baña era batean bere umetxoaren sotiñak entzuten ditu, ta bizi-bizi aren seaskara dijoa. Aurra irri-parrez goiz-argiarl agurka ari zan. Manttoni makurtzen zayo: bere besoetan estu-estu artzen du: ta ama-bio-tzak bakarrik lezaken eran laztanduaz: -«Ene semetxo maitea -dio-, ai! ta zure amatxo bart il balitz...!».

IX

Jainkoak ala beikigu!

Aita ixildu zan: eta lenbizi Eleizan eta gero S. Prantziskoren semien lekaidetxean ordulariak bana-banaka amar dan-dan jo zituan. Anai guziok elkarl begira genion ta, bildurrak eraginda, aitaren ondoragotu giñen.

Baña ua, ordua aditzeakoan, jaiki zan eta bere aboskera aldatuaz: «Amarrak, dio, ta oraindik lotaratzeko? Jaiki ta goazen lo-gelatara. Gabon Jainkoak dizutela!

-Baita zuri-re.

-Ondo lo-egin!

-Biar arte!...».

Ni txikiena nitzan eta ez nion aitari alde egin.

-Alta nik gaur zurekin lo-egingo, bai?

-Zergatik, seme?

-Odolbeltzen ipuyak oso bildurtu nau-ta, bakarrik lotaratzen ez naiz ausartzen.

-Atoz bada nerekin -esanda berekin eraman ninduan.

Kalean aizea gogor zebillen, ta kazkabarra kristelak ausi bearrean zan. Soin guzia ikaraz nuala oeratu nintzan: gero luzaro loa nere begietatik urruti izan nuan. Noizbait orratik, loak artu ninduan.

Ayek ziran amesak! An nitzan laster Arraldeko aitzartean: -«Ene! zein da ori? Odolbeltz!! Ara bere aitzo-az neregana... Aita! aita!...».

Onela esnatu nitzan oe gañean zutik eta aitak eskutik elduta maiteki galdetzen zidala. -Zer dezu, seme?

-A!... erantzun zion. -Odolbeltz amesetan nereganatzen ikusi det, baña... ez da egia, ez aita?...

-Etzaite bildurtu, seme: ara illargia zeruan iñoiz baño ederrago.

Alaxe zan: egualdia oso aldatua zegon: zerua ozkarbi, izarrez apaindua ta illargia baztar guziak argitzen zituala. Goizeko ordu biak ziran...

Urrengo egunean lagun koskor guziok Munoan batuak geunden. Gure begiak Arraldera zijoazkigun, baña etzan iñor aratzeko gauza. Odolbeltzen ipuya entzun ezkerotik, urrutitik begiratzen genion alderdi ari.

Onela ibilli giñan egunetan goiz-arratsaldero geure ogi puska eskuan genduela bakoitzak ipui

berriak kontatuaz. Batek lapur-eriotzak, besteak itxas-ekaitzak: Pernando Amezketarra onek, Juanito Txistularia arek, eta abar.

Gerora, urteak joan, urteak etorri, Arraldeko Garbaidunaren irudia gure buruetatik igesi zan, ta irudiarekin batera bildurra ere joan zitzaigun.

Orain berriz bururatu zait, eta pozez ta naigabez ibilli oi naiz Arralde aitzetan. Naigabez, gure erriak zituan ainbeste ta ainbeste ipui zar ta asele eder gal-tzen ari diralako: -pozez- ostera, euskal-gogoia berriro ernetzen asi dalako, ta ernetze onek euskal asaben biotzak gureetan piztuko dituelako. *Jainkoak noizbait zorion au bekigu!*

AZKENA